

MARIARI, ZERURA IGOERAN



(AMALAUDUNA)



¿Nora zoakuz Ama Maria gu largaturik,
Izar ederrez zeure burua apainduta?

¿Nora zoakuz zerutar baten antza arturik,
Odei pillocho eder batean jazarrita?

¿Nora zoakuz aingeru taldez inguraturik,
Izarrak baño askoz gorago goratuta?
Zu baga be au, geratzen bada naibageturik
Bat geratuten danean legez ama illta?

Badakit, nora zoazan Ama, laztan maitea,
Zoaz, goyetan obetoago bizitera,
Zoaz, dalako goyan Errege zure semea,
Zoaz, beragaz zeu Erregiña izatera,
Zergaitik utsik alboan daukan zure sillea,
Errazoia da zoakozala gozautera.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion 1892-ko Abuztuaren 15-an.

